

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016eko uztailaren 29an hartutako erabaki baten laburpena; 2016-2017 ikasturtean Gasteizko lehen hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei laguntza psikopedagogikoak emateko deialdia egiten da erabakiaren bidez

BDNS (identifikatzailea): 315831

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Derrigorrezko Lehen Hezkuntza ematen duten Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen onuradunak, eta ikasteko arazoak dituzten ikasleei laguntza psikopedagogikoa emateko erabiliko dituzte, ikastetxeek aurkeztutako eskabideak eta txostenak kontuan izanik Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Hezkuntza Zerbitzuak aldeztu aurretik onartuta. Derrigorrezko Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeek eskatu ahalko dituzte laguntzak.

Bigarrena. Helburua

2016/17 ikasturtean Gasteizko ikastetxeetan Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan matrikulatuta daudelarik ikasteko arazoak dituzten ikasleei laguntza ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko uztailaren 29an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

157.352 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

15 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokitzuz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 29an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio Kudeaketako burua
NIEVES DÍAZ DE CORCUERA DÍAZ